



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



Universidad
del País Vasco

eman ta zabal zazu

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERABAKIA, 2023ko OTSAILAREN 24koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, KANADAKO ETA JAPONIAKO UNIBERTSITATEETAN EGONALDIAK EGITEKO ERASMUS+ PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN UPV/EHUko LANGILEAK AUKERATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA.

2020ko uztailean, Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) argitara eman zuen 2020ko deialdian Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko mugikortasunerako finantzabidea lortu zuten unibertsitateen zerrenda.

Deialdi horretan, UPV/EHUK finantzabidea lortu zuen, besteak beste, bere langileak, 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetan, egonaldiak egin zituzten herrialde hauetan: Kanada, Errusiar Federakundea, Hego Korea, Japonia eta Estatu Batuak.

Errusiar Federazioarekin 2021ean esleitutako mugikortasun batzuk bertan behera geratu direnez, 2023ko otsailaren amaieran oraindik funtsak ditugu eskuragarri 2020ko proiektuan. Beraz, UPV/EHUK deialdi berri bat irekitzea erabaki du Kanadatik eta Japoniatik UPV/EHUr langileak etor daitezen.

Esandako guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA, 31. zk.), SEPIEk eta UPV/EHUK Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko ERASMUS+ 2020 proiektua kudeatzeko sinatutako hitzarmenaren barruan, eta horretarako aurrekontu krediturik badagoenez, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Kanadako eta Japoniako unibertsitateetan egonaldiak egiteko Erasmus+ programan parte hartuko duten UPV/EHUko langileak (Irakasle eta Ikertzaileak soilik) hautatzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

Bigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123 eta 124 artikulua); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikulua).

Leioan, 2023ko otsailaren 24an.

Sin.: María Juncal Gutiérrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordea



OINARRIAK:

KANADAKO ETA JAPONIAKO UNIBERTSITATEETAN EGONALDIAK EGITEKO 2020 ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN UPV/EHU-KO LANGILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA.

1.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen bidez, Kanadako eta Japoniako unibertsitateetan egonaldiak egiteko 2020 Erasmus+ mugikortasun programan parte hartuko duten UPV/EHUko IIPa (Irakasle eta Ikertzaileak) hautatu nahi dira.

2.- Parte hartuko duten unibertsitateak.

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunen bidez UPV/EHUtik honako unibertsitate hauetara joan daiteke:

- **KANADA**
 - Concordia University
 - University of British Columbia

- **JAPONIA**
 - Rikkyo University

3.- Mugikortasun motak eta "Virtual Exchange" ekimenak bereziki aintzat hartzea.

3.1.- Mugikortasunen xedea hauetakoren bat izan daiteke: irakaskuntza, prestakuntza edota irakaskuntza eta prestakuntza biak batera.

a) Irakaskuntzarako mugikortasuna

Irakaskuntza xede unibertsitatean graduako edo graduondoko titulu ofiziala lortzeko ikasketa-programa batean emango da.

Ekintza honek honako helburu hauek ditu:

- Irakaskuntza metodologiaren gaineko esperientzien trukea sustatzea.



- Mugikortasun ekintzetan parte hartu ezin duten ikasleei aukera bat ematea beste herrialde batzuetako irakaskuntza ezagutzak eskuratzeko eta, hala behar bada, eskola magistralak/praktikak atzerriko hizkuntza batean jasotzeko.

Modalitate honetan derrigorrezkoa izango da astean gutxienez 8 eskola-ordu ematea, ahal bada gutxienez hiru saiotan.

b) Prestakuntzarako mugikortasuna

Xede unibertsitatean jaso edo eman beharreko prestakuntza baliagarria izango da jakintza eremu berean lanean ari diren edo lanpostu/kargu bera duten kideak elkar ezagutzeko eta elkarrengatik ikasteko.

Ekintza honek honako helburu hauek ditu:

- Jardunbide egokiak ezagutzea, xede unibertsitatearen lana egiteko eta antolatzeke moduari dagokionez.
- Unibertsitate kideen arteko harremanak indartzea.

Modalitate honen barruan ez dago sartuta biltzarretara joatea.

c) Iraskaskuntzarako eta prestakuntzarako mugikortasun konbinatua

Prestakuntza eta irakaskuntza uztartzen dituen mugikortasuna egin daiteke. Modalitate horretan, gutxienez lau eskola-ordu eman beharko dira, ahal bada astean gutxienez bi saiotan. Mugikortasun-akordioa irakaskuntzarena da (I. eranskina), 4, 5, 6 edo 7 eskola-ordu adierazita.

3.2.- Deialdi honetan, bereziki kontuan hartuko dira ikasgai jakin batean "Virtual Exchange" proiektu bat (VE) abiaraztea aurreikusten duten mugikortasun-proposamenak.

"VE", UPV/EHUko IIPak eta destinoko unibertsitatean jasotzen duen IIPak batera egin beharreko jarduera/proiektua da. Helburua izango litzateke ikasleei ikaskuntza eta talde-lana online trukatzeko aukera ematea, UPV/EHUko eta helmugako unibertsitateko IIParen ikuskaritzapean.

Mugikortasunak proiektua diseinatzeko balio dezake. Aproposena, mugikortasuna proiektuaren parte izatea izango litzateke, proiektua mugikortasunaren aurretik diseinatu eta martxan jarritz, eta IIPak bidaia aprobetxatzea jardueran parte hartzen duten atzerriko unibertsitateko ikasleei eskolak emateko.



4.- Eskaintako plazak.

Deialdi honen bidez, plaza erabilgarri hauetan parte hartuko duten langileak hautatu nahi dira:

UPV/EHUtik, HONAKO HAUEK PARTE HARTU IZANGO DUTE	ZE UNIBERTSITATEETARA	PLAZEN KOPURUA GUZTIRA
<p>- Concordia University-ra: * Bilboko Ingeniaritza Eskolako IIPa, Formula Student Bizkaia proiektuan parte hartzen duena.</p> <p>* Hezkuntza eta Kirol Fakultateko IIPa, arrisku kardiobaskularra duten pertsonen gain ariketa fisikoak duen eraginean espezializatuta dagoena.</p> <p>- University of British Columbia-ra: * Zientzia eta Teknologia Fakultateko IIPa, hondakinen balorazioan espezializatuta dagoena, batez ere biomasan.</p>	<p>KANADA</p> <p>Concordia University (Formula car project) –Plaza 1</p> <p>Concordia University (Perform Centre) – Plaza 1</p> <p>University of British Columbia (Clean Energy Research Centre) - Plaza 1</p>	3
<p>- Rikkyo University-ra: * Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko IIPa, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduen Atzerriko Hizkuntza Minorrean ardura duena.</p>	<p>JAPONIA</p> <p>Rikkyo University / College of Intercultural Communication - Plaza 1</p>	1

5.- Erasmus+ beken ezaugarriak.

Erasmus+ programak, gehienez ere, egonaldiko bost egun eta bi bidai egun finantzatuko ditu; horri bidaiaren gastuen zenbatekoa gehituko zaio, distantziaren arabera.

ABIAPUNTUKO UNIBERTSITATE A	NORA	Eguneko zenbatekoa, 5 egunera arte, gehienez.	Bidaia gastuetarako zenbatekoa	Gutxieneko/gehieneko egonaldia
UPV/EHU	Kanada	180 €/eguna	820 € Montreal eta 1500 € Vancouver	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1) (2)
UPV/EHU	Japonia	180 €/eguna	1500 €	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1) (2)

(1) Bidaia bi egunak, laguntza lortzeko zenbatu ahal izateko, xede unibertsitatean egingo den bost eguneko egonaldiaren aurrekoak edo/eta ondorengoak izan beharko dute.

(2) Baimendutako gutxieneko egonaldia baino luzeagoa egin nahi izanez gero, Erasmus+ laguntza gehienez ere bost eguneko egonaldiari eta bidaiarako bi egunei dagokiona izango da; gainerako egonaldia laguntzarik gabekoa edo "zero behaduna" izango da.



6.- Mugikortasuna egiteko aldia.

Mugikortasuna 2023ko apirilaren 17tik uztailaren 28ra bitartean egin beharko da.

7.- Parte hartzeko baldintzak.

Interesdunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) UPV/EHUren (edo haren zentro atxikiaren) nominan egotea, bai eskaera egiteko unean, bai mugikortasuna egiteko unean.
- b) UPV/EHUren eta xede unibertsitatearen oniritzia edukitzea, behin-behineko mugikortasun akordioan jasotako lan egitasmoarekiko (Mobility Agreement for Teaching- I. eranskina, -Teaching and Training mugikortasun konbinatuarentzat ere balio du-, edo Mobility Agreement for Training – II. eranskina)
- c) Interesdunak lana egiten duen saileko edo ikastegiko arduradunak idatzitako aldeko txostena edukitzea.
- d) Xede unibertsitatean lan-plana gauzatu den hizkuntzan maila ona izatea, dagokion ziurtagiriaren bidez egiaztatua.

8.- Eskaera.

Eskaerak banakakoak izango dira eta destino bakar baterako.

Eskaera online bete beharko da esteka honen bidez:

<https://www.encuestafacil.com/respweb/cuestionarios.aspx?EID=2876536>

Bestalde, eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek bidali beharko dira emailaz bidaliz pc.international@ehu.eus helbidera:

1. Behin-behineko lan egitasmoa (Mobility Agreement for Teaching- I. eranskinean dago eredu, edo Mobility Agreement for Training – II. eranskinean dago eredu, ESKATZAILEAK SINATUTA).
2. Xede unibertsitateko homologoaren txostena, non behin-behineko mugikortasun akordioan jasotako lan egitasmoaren proposamena onartuko den (Eredu III. eranskinean dago).
3. Eskatzailearen curriculum vitae, ingelesez.
4. Interesdunak lana egiten duen saileko edo ikastegiko arduradunak idatzi eta sinatutako aldeko txostena.
5. Xede unibertsitatean erabiliko den hizkuntzaren ezagutza frogatzen duen ziurtagiria.
6. UPV/EHUrekin duen lan-harremana egiaztatzen duen agiria.



Osatu gabeko eskaerak ez dira aintzat hartuko.

9.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko otsailaren 27an hasi, eta 2023ko martxoaren 24an amaituko da.

10.- Balorazio batzordea.

Jasotako eskaerak ebaluatzeko batzordea honako pertsona hauek osatuko dute: Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko buruak eta UPV/EHUko teknikari batek, azken honek batzordeko idazkari lanak egingo ditu.

UPV/EHUK eskatzaileen xede unibertsitateei jasotako hautagai bakoitzaren ebaluazioa egiteko eskatuko die.

11.- Balorazio irizpideak.

Parte hartzaileak honako irizpide hauen arabera hautatuko dira:

1. Behin-behineko mugikortasun akordioan proposatutako lan egitasmoaren eta hautagairen balorazioa: 1etik 10era.

Bereziki kontuan hartuko dira ikasgai jakin batean "Virtual Exchange" proiektu bat abiaraztea aurreikusten duten mugikortasun-proposamenak, deialdi honetako Oinarriaren 3.2 atalean adierazten den bezala.

2. Xede unibertsitateak hautagaiari buruz egindako balorazioa: 1etik 5era.

Eskatzaile bakoitzak, gutxienez, 11 puntu lortu beharko ditu, plazaren bat eskuratzeko hautagaia izan ahal izateko.

Lehentasuna emango zaie Erasmus+ programaren testuinguruan mugikortasunik egin ez duten pertsoneri, mugikortasunaren bat egin duten pertsonetik. Lehendik mugikortasunik egin dituzten pertsonen artean berdinketa emanaz gero, 2016/17 ikasturtetik Erasmus, LLP edota Erasmus Mundus mugikortasun gutxiago egin dituztenak lehenetsiko dira; oraindik berdinketarik badago, ebazpen hau ematen den datan UPV/EHUn egun gehien lan egin duenak lortuko du plaza.

12.- Erabakia.



Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordeak, batzordeak egindako lehenespena aintzat hartuta, onartutako mugikortasunen zerrenda eta erreserben zerrenda argitaratzeko agindua emango du.

Nolanahi ere, interesdun bakoitzari dagokion jakinarazpena bidaliko zaio, eskaeran adierazi duen helbidera, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da, mugikortasuna onartzeko edo hari uko egiteko.

13.- Erasmus+ diru laguntzen hitzarmena.

Parte hartzeko aukeratuak izan diren pertsonen mugikortasuna egin aurretik, diru laguntzari buruzko hitzarmen bat sinatu beharko dute. Hitzarmen horretan, langileentzako Erasmus+ laguntzaren onuradun gisa hautagaiek bere gain hartu beharreko eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira.

14.- Aseguruarekiko betebeharrak.

Parte hartzaileek aseguru bat eduki beharko dute, istripuak, gastu medikoak, lekualdatze medikoa, eta aberriratzea estaltzeko. Bidaia kontratatzean, egoera horiek estaltzen dituen aseguru bat kontratatu behar da, nahitaez.

15.- Onuradunen betebeharrak.

Mugikortasuna egiteko hautatutako pertsonen lekualdaketarako lizentzia bat izapidetu beharko dute, UPV/EHUren araudi orokorraren arabera.

Deialdian ezarritako oinarriak eta/edo epeak ez betetzea edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatuzea, emandako laguntza ezeztatze edo eteteko arrazoia izan daitezke, eta jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eska diezaieke onuradunei eta xede unibertsitateari, egonaldia deialdiaren helburuaren funtsarekin bat etorrira egin dela egiaztatzeko.

16.- Deialdi honi buruzko informazioa eta harremanak egiteko laguntza.

UPV/EHUK deialdi honetan egindako urratsak honako webgune honetan argitaratuko ditu:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/ehuko-langileentzat-informazioa>

Xede unibertsitateetan harremanak bilatzeko laguntza behar izanez gero, interesdunak Nazioarteko Harremanetarako Bulegoarekin harremanetan jar



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

daitezke pc.international@ehu.eus helbide elektronikoaren bidez edota 943 015127 telefono zenbakira deituz.

I. eranskina.- Mobility Agreement for Teaching (IRAKASKUNTZA).

**** "Combined Teaching and Training" mugikortasunerako ere baliagarria. Kasu honetan iraskaskuntza orduak 4, 5, 6 edo 7 izan behar dira.

II. eranskina- Mobility Agreement for Training (PRESTAKUNTZA).

III. eranskina- Dokumentu erdua, interesdunaren homologoak lan egitasmoaren proposamena onar dezan xede unibertsitatean.